

Euskadiko gazteen artean nagusitzen dira erlijioetan sinesten ez dutenak

Erljiozaletasuna hedatuago dago Espainiako gazteen artean Euskadikoen artean baino

2012an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heren batek (% 34) katolikotzat jo du bere burua, baina % 4k soilik diote katoliko praktikanteak direla.


Beren burua katolikotzat jotzen duten gazteen ehunekoa nabarmen jaitsi da azken urteotan: 1998an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 59k katolikoak zirela zioten, 2008an ehuneko hori % 37ra murriztu zen eta 2012an % 34ra.

Gauza bera gertatzen da katoliko praktikanteak direnak bakarrik kontuan hartuz gero: 1998an % 14 ziren, 2008an % 7 eta 2012an % 4.


Gazte katolikoak murriztu diren bitartean, gehitu egin dira gazte ateoak, agnostikoak, ez sinestunak eta erlijio gaietan interesik gabeko gazteak. Horien guztien ehunekoa nabarmen igo da 1998tik, orduan % 31 ziren, eta 2008an eta 2012an % 59 eta % 54, hurrenez hurren.

Bestalde, beste erlijioetako gazteen ehunekoak gorantz egin du apurka apurka, eta 1998an % 1 izatetik, 2008an % 2 eta 2012an % 5 izatera pasatu da. Beste erlijioetan sinesten duten gazteen hazkundera immigrazioaren goranzko joerarekin bat dator: etorkin gazteak % 2,4 ziren 1998an, % 11,2ra hazi ziren 2008an eta % 14,4 dira 2012an.


Azkenik, nahiz eta erlijioetan ez sinestu Jainkoarengan sinesten duten gazteak gutxixeago dira orain lehen baino, 1998an % 7 izatetik 2012an % 4 izatera murriztu baitira.



Euskadiko gazteen eta 30 urtetik gorako biztanleen datuak alderatuz gero, 2012koak beti ere, ikus dezakegu 30 urtetik gorakoen artean beren burua katolikotzat jotzen dutenen ehunekoak bikoiztu egiten duela gazteen artean katolikoak direla diotenena (% 71 eta % 34, hurrenez hurren). Aitzitik, ateo edo agnostikoen kopurua bikoitza da gazteen artean (% 54) 30 urtetik gorakoen artean baino (% 23).



Espainiako gazteekin egindako alderaketak oso ageri uzten du Euskadiko gazteen sekularizazioa askoz handiagoa dela. Espainian gazteen % 56k jo dute beren burua katolikotzat eta beste % 36k ateoak, agnostikoak, ez sinestunak edo interesik gabekoak direla diote. Euskadiko gazteen artean zifra horiek alderantzikatzen dira: % 34k katolikoak direla diote eta % 54k ez sinestunak, ateoak, agnostikoak edo interesik gabekak.



Orain Euskadiko gazteen datuak taldeka aztertuko ditugu. Beren burua katolikotzat jotzen dutenak gehiago dira 20 urtetik azpikoen artean (% 41) adin horretatik gorakoen artean baino (% 29 dira 20 eta 24 urte bitartekoen artean eta % 33, 25 eta 29 urte bitartekoen kasuan).

Nesken artean mutilen artean baino gazte gehiagok diote katolikoak direla (% 37 eta % 31, hurrenez hurren).

Bizi diren lurraldearen arabera, ikus daiteke Bizkaiko gazteak direla neurri handienean katolikoak direla diotenak (% 38). Jarraian Arabakoak agertzen zaizkigu (% 36) eta, azkenik, Gipuzkoako gazteak dira neurri txikienean diotenak katolikoak direla (% 26).

Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aztertu ditu, eta horretarako hainbat ikerketa hartu ditu oinarri: alde batetik, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteei egindako inkestetatik abiatutako azterlanak, [Gazteen Argazkiak 3](#), 1998koa, [EAEko gazteen sinesmenak eta erlijiozaletasuna](#), 2008koa, eta [Euskadiko gazteak 2012](#) (azken hau, argitaratzeko bidean), hain zuzen ere; bestalde, Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleriarekin alderaketa egiteko Eusko Jaurlaritzaren [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) emandako datuak erabili ditugu; azkenik, Espainiako gazteei dagozkien datuekin alderatzeko, [Jóvenes, participación y cultura política](#) izeneko txostena erabili dugu; txosten hori Espainiako gazteriaren institutuak (INJUVE) burutu zuen 2011n.

Jarrai iezaguzu gizarte-sareetan!

